

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko ekainaren 22an • 193. zka.



Aretxabaleta abesbatza

horma armairuak



tolesgarriak

**horma armairu
irristagarriak**



AZKARATE AROSZTEGIA

ARETXABALETAK 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak*

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA



Trajeak, berokiak,
soinekoak, gonak
eta alkondarak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

Zergatik uste duzu gertatu direla aurten horrenbeste lan istripu? Zer neurri hartu beharko lirateke gerta ez daitezen?



Itziar Arregi

Askotan pertsona beraren deskuidoagatik izaten da, konfidantza larregi hartzea-gatik.

Arauk ondo bete beharko lirateke bai enpresaren eta bai langileen aldetik.




Mikel Mendiartx

Segurtasun gutxi dagoela-ko dela uste dut. Enpresa berak eta langileak segurtasun neurriak zaindu behar dituzte.



Domi Lezeta

Ez dakit. Segurtasun gutxi dagoela uste dut. Danok izan behar dugu arduratsuago lanean eta bereziki lan arriskutsuetan.



Juanito Urreta

Arrazoi askogatik izan daiteke, segurtasun falta, deskuidoak, esperientzia faltak, faktore asko daude. Segurtasun komiteak lane-ko segurtasuna ikertu beharko luke eta zaindu.

ESKUTITZA



IKASTOLEN JAIETAKO AUTOBUSEN INGURUKO OHARRA

1996. urtetik hona, Debagunek, Deba Goieneko euskara elkarten elkar-goak, Ikastolek antolatzen dituzten jaietara joateko autobusak jarri izan ditu. Nafarroa Oinezera eta Herri Urratsera joateko, gainera, bezperan ere autobusa antolatu izan du hurrengo eguneko festan laguntzera joandako kideentzat.

Autobusak antolatzeko ekintza, sentsibilizazio lan bat egitea eta, bide batez, euskararekiko motibatzea izan behar du helburu. Iazko neguan, urteko festak pasatu ostean eta ekintzon balorazioa egiterakoan guk markatutako helbururik

lortzen ez genuela ohar-tu ginen; zerbitzu soil bat ematen ari ginela ikusi genuen. Zerbitzua ematea, beste helburu barik, gure lana ez dela izan behar uste dugu antolatzailena baizik. Horregatik, bailarako hainbat ikastolekin harremanetan jarri ginen gure erabakia ezagutarazteko, eta, bide batez, beraiek zerbitzua antolatzea erabakiz gero, gure laguntza eskaintzeko. Ikastolek ikastolen jaietara autobusak ez antolatzeko erabakia hartuz gero, guk antolatutako dituenari, inor prest balego, gure laguntza emateko prest gaude.

Bestalde, Nafarroa Oinezera bezperan laguntzera joateko eta Herri Urratsera bai bezperan eta baita egunean

ere joateko autobusak antolatzen jarraituko dugu, batetik, gure helburuak betetzen laguntzen digulako, eta bestetik, Herri Urratsen kasuan, iparraldeko eta hegoaldeko ikastolen egoera guztiz desberdina delako. Gutun honen bidez gure bazkide, zerbitzu hartzaile eta herritar orori jakinarazi nahi izan dizuegu gure erabakiaren arrazoiak.

*Loramendi euskara
elkartea*

Aretxagazeta

193. zenbakia
2000ko ekainaren 22an.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak.

Zuzendaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz,
Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroia, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzailak:
Aitor Urrutia, Nerea Lete, Aiora Filarmendi.

Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.
Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: S5378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila

■ URKULUKO HEGAZTIAK IKUSGAI ASTE BUKAERAN

Urkuluko hegaztiak ezagutzeko asmoarekin udaleku ingurugiro sailak hainbat ekintza antolatu ditu aste bukaerarako.

Ekainaren 23tik 25era bitartean Ubarroi taldeak Urkuluko hegaztien inguruan egindako marrazkiak egongo dira ikusgai udaletxe zaharrean.

Ekainaren 25ean, domeka, ibilaldia egingo da Urkulura txoriak euren bizilekuan ikusteko. Mikel Olano, Gipuzkoako Foru Aldundiko basozaina etorriko da azalpenak emateko eta teleskopioa ere jarriko da. Irteera goizeko 10:00etan udaletxe zaharretik egingo da.



Ekainaren 23an San Juan bezpera

Ekaina aurrera doa eta San Juanak ere heldu zaizkigu. San Juan eguna ez, baina bezpera Aretxabaletan ere ospatzen dugu. Urtero letxe San Juan sua eta tantaia izango dira protagonista ekainaren 23ko gauetan.

- 18:00 Japoniar bonbak
- 18:30: Buruhaundiak Aretxabaletako txistularien laguntzaz
- 19:00 Loramendi dantza taldearen emanaldia
- 22:00 Fantasia orkestrarekin dantzaldia
- 22:30 San Juan sua eta ohitura den legez santa ageda mutilek tantaia jasoko dute herriko plazan

UZTAILEAN UDALEKU IREKIAK UMEENTZAT

Urtero letxe aurten ere udaleku irekiak antolatu ditu udaleku kultura sailak. Uztailaren 3tik 21era bitartean, 4 eta 13 urte bitarteko ume eta gazte txoek primeran pasatuko dute. Horretarako ekainaren 23a baino lehen izena eman behar da Kultur etxean, Loramendin edo Ludotekan. Apuntatzeko orriaz gain, haurra agertzen den famili liburuko orriaren fotokopia eta Euskadiko Kutxako 3035 0002 190020030706 kontu zenbakian 4.000 pta.ko ingresuaren agiria eraman behar dira.



FOTO

Urkiola
ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20
ARETXABALETA

Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak

Albunak
Argazki kamarak

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

Jose Mari
bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
Aretxabaleta

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

Mobiliario
ARENAZA

. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76

Arrakasta haundiz burutu zen I. mendi martxa

Ekainaren 11an egin zen Aretxabaletako I. mendi martxa, baita arrakastaz burutu ere. Eguraldiak ez bazuen lagun-
du ere, badirudi mojei arrautzak eramatea ahaztu zitzaie-
la, bildutako jendeak giroa
berhala berotu zuen.

292 parte-hartzaile hurbildu ziren Herriko plazara, horietatik 96 atxabaltarrak. Gai-
nontzekoak leku askotatik eto-
rri ziren, Markina, Zarautz,
Irun, Gasteiz, Elorrio, Madri-
le-

ko lagun bat ere bai. Lehenen-
go heldu zirenek lau bat ordu
egin zituzten, azkenek, barrez,
zortzi. Lehenengok eta azke-
nek, denek goraiatu zuten
antolatzaileen lana, janaria
gura beste eta nekatu arte
egon baitzen: salda, kafea, do-
nutsak, tomateak... zer ez ze-
goen! Guztira 69 kg. janari eta
325 litro edari errepertitu
zuten. Hurrengo martxa 2002.
urtean antolatzeko asmoa
agertu zuten antolatzaileek.



■ 292 lagunek eman zuten izena, baita 286k bukatu ere.



■ Neska eta mutil, gazte eta nagusi, ez zen inor falta.



■ Leixargarateko txabolan jendeak gogor lan egin zuen.



■ Mendiostatik behera, ordurako okerrena eginda zegoen.



■ Erratzekin joan ziren antolatzaileak, martxari bukaera emanaz.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekararren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**


Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA



UDALETXEAN E-MAILA JARRI DUTE

Aretxabaletako udaletxera ere heldu dira interneta eta korreo elektronikoa. Udaletxeko ordenagailu guztiak sarean jarri eta e-mailak jasoteko bakoitzari bere buzoia jarri zaio.

Departamentu bakoitzean helbide orokor bat egoteaz gain, bakoitzak berea ere badauka. Beraz, hemendik aurrera udaletxera bertara joan barik iritzi, kexa eta eskaerak egiteko aukera ere egongo da. Horretarako helbidea honakoa da: udala@aretxabaleta.net Alkatearekin zuzenean egon gura izanez gero, barrez, beste helbide hau dago: alkatetza@aretxabaleta.net

Kiroletxe eta kulturetxean, bestalde, interneta jar-terakoan telefono zenbakia ere aldatu egin dute. Kiroletxekoa: 943 712628 kirolaretxabaleta@udal.gipuzkoa.net Kulturetxekoa: 943 711027 kulturaretxabaleta@udal.gipuzkoa.net



Plataformako batzarretara talde guztiak etortzea komeni da

Herritik pasatuko den martxa nazionala antolatzen dabilta

Euskal Herriko plataformen bilkurak eta Senideak antolatutako Euskal Herri osoa zeharkatuko duen martxa nazionala uztailaren 12an helduko da Deba Goienera. Aretxabaletan arratsaldeko 5etan sartuko da Eskoriatzatik bueltan eta herrian ordu betean ibili ostean, Arrasatera joango da.

Martizenean, hilak 20, egindako bileran Aretxabaletako ibilbidea zehaztu zen. Almeneko bide kurtzean testigua hartu eta 100 metro eskuz aldatzen joango da plataformari atxikimendua adierazitako taldeetako ordezkarien artean. Martxa oinez egingo da eta herritar guztiak testiguaren atzetik joan daitezkeen eskatzen da platafor-

matik. Martxak iraun bitartean txistulari, trikitilari eta dantzariak kaleak animatzea ere gura da.

Uztailaren 4an berriz batzarra egingo da plataformari baietza emandako taldeen artean, talde bakoitzak herriko zein 100 metroan eroan behar duen testigua jakiteko.

Uztailaren 9an Urbiara

Martxa nazionala girotzeko asmoarekin eskualdeko plataformek Arantzazutik Urbiara ibilaldia antolatu dute uztailaren 9rako. Goizeko 10etan Arantzazun, Sindika jatetxe parean elkartu eta hasiera emango zaio ibilalditxoari. Giro polita izango da eguraldiak laguntzen badu behintzat.

FELICIANO MARTINEZI AGUR

Joan den hilaren 15ean Feliciano Martinez 53 urteko atxabaltarrak bizia galdu zuen Fagor Ederlanek Uri-barrin duen pabilioian lanean ari zela.

Tartetxo honetan gure omenalditxo eskaini gura izan diogu atxabaltarrari. Izan ere, Feliciano odol bankuko ordezkaria zen eta urtero-urtero Aretxabaletara fin-fin ekartzen zizkigun Aretxabaletan jasotako odol emaleen datuak. Horrez gain, Al Aldalus taldeko kidea ere bazen, Feliciano cordobarra baitzen bera.

Une latz hauetan gure doluminak bidaltzen dizkiegu familiari eta ingurukoiei.

HURRENGO ASTELEHENETAN ODOL EMATEAK

Hurrengo astelehenean hasita, hiru astelehenetan jarraian odol emateak izango dira Aretxabaletako osasun zentruan.

Ekainaren 26an, uztailaren 2an eta 10ean Arabako odol bankukoak izango dira herrian arratsaldeko 16:30etatik 20ak bitartean. Orain artean bezala jende asko animatzea espero da.

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makillaje permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

BITXITEGIA

MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tel.: 943 77 13 57

Leibar

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
ARETXABALETA





**ARRASATE
HOGAR**

- ✓ KOLTZOITEGIA
- ✓ ETXEKO OIHALAK
- ✓ ALTZARI OSATZAILEAK
- ✓ ETXEKO TRESNAK

Araba Etorbidea, 3
(San Andres, BM ondoan)
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 08 11

Lauxitta TABERNA



Pintxoak
Otaratekoak
Hamburgesak
Patata brabak

ORDUTEGIA:
Goizeko 10etatik
gauko 10etara



Lauxitta kalea, 4 20550
ARETXABALETA ☎ 943 79 29 36

■ BATASUNA ETA HAIKA TALDEAK AURKEZTU DIRA HERRIAN

Joan zen egue-
nean, hilak 15, herrian
Batasuna taldea osatzeko
lehenengo batzarra egin
zen. Urte beteko prozesua
izango da, eztabaida bidez
adostasunera heltzeko eta
jende ezberdinak parte
hartzea da helburua. Ba-
tzar honetan 15 bat lagun
elkartu baziren ere, hu-
rrengoan, hilaren 22an
egingo denean, gehiago
elkartzea espero da.

Eguakotxean, hilak 16,
barrez, Aretxabaletako
Haika taldea aurkeztu zen.
Garazi Biteri eibartarra
izan zen hizlaria eta bere
esanetan herri mailan
asanbladak sortu eta aza-
rora bitartean gai ezberdi-
nak aztertzea da helbu-
rua, horien artean Euskal
Herriko gazteen egoera.
Haika taldea, Jarrai eta
Gazteria taldeak desager-
tu ostean sortu zen apiri-
lean Kanbon egindako
Topaketetan.



Otala Zelai egunaz gozatu zuten umeek

Zapatuan ospatu zen maia-
tzean eguraldi txarra zela
eta atzera utzitako Otala
Zelai eguna. Eguraldi onak
ume eta gaztetxo ugari
erakarri zituen Gorritiren
animaliekin jolas egitera
Otala Zelaira eta aparteko

giroa sortu zen bertan.

Arratsaldean, barrez, He-
rriko plazan egon zen zer
ikusia eta non jolastua.
Gaztelu puzgarriak, roko-
dromoa, tirolina, eta beste
hainbat tailer eta jolas izan
ziren umeen gozagarri.



Kurtzebarri eskolako eguna ospatu zen

Ekainaren 17an eta kur-
tsoa bukatzeko aste bete
falta zitzaientean ikasleei,
Kurtzebarri eskolako
eguna ospatu zen. Egu-
raldi onak lagunduta gu-
raso eta ume ugari bildu
zen Iturrigorri frontoira
bazkari garaian, 400 in-
guru hain zuzen. Ondor-
ren musikaren laguntzaz
dantzan ere egin zuen
batek baino gehiagok.

EKAINAREN 27AN GOIENA KOOPERATIBA SORTUKO DA

Datorren martizenean,
ekainak 27, Goiena Koo-
peratiba sortuko da. Ho-
rretarako erretore kontsei-
lua osatuko duten ordezkariak
Bilbora joango dira
notario aurrean sinatzera.
Aretxabaletatik Josu Sara-
sua, Loramendi euskara
elkarteko lehendakaria,
eta Mireia Uribetxebarria,
Aretxabaletako komunika-
bideakeko batzordekidea
joango dira. Mireia izango
da, gainera, hemendik
aurrera Goienan Aretxaba-
leta ordezkatzeko duena.

Dena dela ez da izango
lehenengo sinaketa ekital-
dia, 1999ko abenduan
egin baitzuten lehenen-
goa euskara elkarteetako
lehendakariak. Apirilean,
Otalan, barriz ere sinaketa
ekitaldia egon zen Goiena-
ri baietza emateko. Orain-
goan, ordea, notaritzan si-
natzerakoan eskriturak
legalizatu eta ofizialki sor-
tuko da kooperatiba.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Aretxabaletako industrialdea, F-O-10 (2. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68




Lubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

Mikelek, Oscar Mayor mondraueta-rrarekin batera, Ubarroi taldea osatzen du. Urkuluko hegaztiak behatzea eta identifikatzea dute gustuko eta orain marrazki erakusketa eskainiko digute Urkulun zer daukagun jakin dezagun.



Mikel Arroiababe

Urkuluko hegaztiak aztertzen

■ **Marrazkilaria, komikigilea, biologoa, irakaslea... zer zara?**

■ Dana, denetik egin behar da eta. Berez biologoa naiz baina momentu honetan irakasle sentitzen naiz, oso gustura nabil eta. Marrazkiak egitea hobbia izango litzateke.

■ **Noiztik marrazkiak egiteko zaletasuna?**

■ Betidanik. Hasieran kua droak egiten hasi nintzen baina nekatuta bukatu nuen, gainera diru asko suposatzen zuen. Marrazkiak egiteko, barrez, kuaderno eta boligrafo bateaz nahikoa da. Oleoak kategoria haundiagoa izan arren oso mugatua da, marrazkiekin, ostera, leku gehiagotara hel naiteke: kartelak egiten ditut, komikiak Aretxagazetarako...

■ **Zergatik aukeratu zenuen biologia ikastea eta ez marrazkien inguruko ikasketaren bat?**

■ Biologia beti gustatu izan zait eta batxilergoko azkenengo urteetan, gainera, biologiako irakasle ona izan nenez horrek animatu ninduen. Marrazkigintza inoiz ere ez dut hartu lanbide gisa, hobby bat izan da. Eta pozten naiz, marrazkigintza hartu banu ez nintzatekeelako biologo izango orain eta biologia aukeratu nuelako marrazkigilea ere banaiz.

■ **Nola sortu zenuten Ubarroi taldea?**

■ Oscar Mayor eta biok, biologiako ikasketak bukatu ostean, ezer ez genekiela konturatu ginen. Beraz, zerbait egin beharra geneukala erabaki eta hegaztiak aztertzen hasi ginen orain

lau bat urte. Ubarroi izena geroxeago jarri genion eta Urkulun dagoen txori baten izena da.

■ **Zer daukate hegaztiak beste animali batzuk ez dutena?**

■ Oso samur ikusten direla. Ugaztunak aztertzekeo aztarnak begiratu, pausuak jarraitu... lan haundia eskatzen du eta hasi berrientzat oso zaila da. Urkuluk daukan aberastasuna ikusita gainera nahitaezkoa zen hegaztiak aztertzea.

■ **Zein da aste bukaerarako prestatu duzuen erakusketaren helburua?**

■ Herritarrei Urkuluk daukan aberastasuna ezagutaraztea izango litzateke. Jendea bertara joaten denean ahate batzuk baino zerbait gehiago dagoela kontura

dadin eta zaindu beharra dagoela jakin dezan. Bate-tik, teleskopioak jarriko dira Urkulun txoriak ikusteko eta bestetik neuk egindako marrazkiak egongo dira ikusgai udaletxe zaharrear.

■ **Zer dago Urkulun?**

■ Urkulu, Gipuzkoan, hegazti espezie ezberdin gehien dituen tokia da. Isurialde kantauriarra eta Araba edo mediterranearraren arteko mugan dagoelako gertatzen da hau, eta bi aldeetako hegaztiak batzen dira hemen.

■ **Zer egiten duzue Ubarroi taldean?**

■ Zer hegazti dagoen eta zein urtarotan behatzen ibili gara lau urtean eta 80 bat espezie identifikatu ditugu. Dena dela, taldearen helburu nagusia geuk ikastea da.


Kokoteraino

Kokoteraino pistolen hots zentzubakoez, hemengo eta hango militarren itsukeriaz eta batzuk zein besteen logika odoltsu antzuaz. Kokoteraino ETA-k gizartearen nahiari dion begirune eskasaz, PP eta antzekoen faltsukeria miserableaz eta abertzale eskuindarren nortasun epelaz. Kokoteraino ezkertiar ei diren abertzale askoren akritikotasun basatiaz, espagnol zapaltzaileen harrokeriaz eta egoera lokatztu honetan eroso asko daudden hainbaten patxadaz. Kokoteraino leihoetan eskegitako zein bazterretan abandonatutako presoen herriratzearen aldeko pankartei egiten zaien kasoik ezaz, egunkari eta tertuliano faxisten lotsagabekeriak eta kolore guztietako polizia harroskoen mehatxuez. Kokoteraino Gasteiz, Bilbo, Iruña... edonon, arrotz sentitzeaz, Euskal herrian euskaraz ezin bizi izateaz eta erdaldun kolonialistek gurekiko erakusten duten mespretxuaz.

Kokoteraino ETB-k gu, euskaldunok, mozolotzat hartzeaz, errepikapenez jositako programazio jasanezina, pilota edo futbola halabeharrez ikusi beharraz eta kate euskalduna gidatzen duten politiko analfabetoen inkompetentziak. Kokoteraino aita santu ihartu horrek duen influentziak, elizak esaten dituen astakeriez eta kondoia erabili behar ez dela esanagatik, hainbat fraile dogmatiko berehala atxilotu ez izanaz. Kokoteraino makroekonomia ulertezin horren bilakaera osuntsua ei denaz, iparraldeko herrialdeen miseria telebisatuaz eta hegoaldeko ongizate birtuala babeste aldera, mugetan jarritako hesiez. Kokoteraino eskaleen begirada errukiorrari erantzunean botatako indiferentziak, pateratan datozen iheslariei jarritako oztopoez eta ETT-ek luzatutako esku beltz latz horri inpotentziak heldu beharraz. Kokoteraino merkatal zentru erraldoien eredu inpersonalaz, inora eramaten ez gaituen neurrigabeko desarrollismo zoroaz eta mobil zein punto com-en morroitzapera makurtutako existentziak.

-Hi Jau, atera ezak zerbeza bat. Egin dezagun topa!. Benga, etorkizunagatik. Klink!. Eta rokanrollagatik, eta eguzkiagatik, eta disidentziagatik, eta sexuagatik, eta lanik bariko egunenagatik, eta... Horixe ba, etorkizunagatik. Benga beste bat. Klink!.

Andoni URZELAI



PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

MAITE ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

HAURRAK



Umeendako
moda

Lezama merkatal
zentrua, 15
Tel.: 943 77 14 86
ARETXABALETA



Orain urte batzuk 50 kidetik gora zituen Aretxabaleta Abesbatzak. Gaur egun 30 inguru izango dira.

Abesbatza edo kanturako zaletasuna

Euskaldunok abeslari onak izan gara. Fama hori izan dute behintzat gure arbasoek.

Beraz, ez da harritzekoa Euskal Herriko herri gehienek bere abesbatza izatea.

Txikia edo haundia, baina domeketako meza girotuko zuen abesbatza.

Aretxabaletan ere aspalditik girotzen dizkigu koruak meza nagusiak, baina ez hori bakarrik sariak ere ekarri ditu herrira.

Euskaldunok beti izan gara berbetan motzak. Fama hori izan dute behintzat gure arbasoek, berba bat ere ez neurritz kanpo. Kantuan, ordea, ezin da gauza bera esan. Familia artean edo lagun giroan, bapo bazkaldu ostean, ezinbestekoa izaten zen kan-

tuan hastea: Boga-boga, Isil-isilik dago... Ez bakarrik familia artean, domeketako mezetan abesteko ere batzen zen jendea eta poliki-poliki abesbatzak sortzen hasi ziren. Euskal Herriko herri gehienek eta auzo askok ere bai, abesbatza izan dute.

1980ko San Jose eguna
Aretxabaleta Abesbatza 1980. urteko San Jose egunean eratu eta hasi zen lanean Juan Luis Izagirrerren zuzendaritzapean. Gizonetzkoek bakarrik osatutako abesbatza izan zen. Juan Luis, ordea, hurrengo urteko Andra Mari bezpe-

ran hil zen eta bere hutsunea Anjel Barandiaranek bete zuen. Zuzendari berriarekin emakumeak ere sartu ziren abesbatzan. Urte hartan, gainera, lehenengo batzarra osatu zen eta lehendakari lanetarako Jose Luis Errasti aukeratu zuten.



1950eko emakume korua
Aretxabaletan betidanik izan da kantatzeko afizioa. Hor daukagu Cristobal Altube esate baterako. Cristobalek fama handia lortu zuen Madrileran joan eta kantu ikasketak egiteko aukera izan zuelako. Aita Arrue konpositore frantziskotarra ere ezin da ahaztu, koruak bere lanak abestu izan ditu eta.

Ez dira, ordea, kantuan ibilitako bakarrak izan. Atxabaltar gizonezko asko tipleen korutik pasatutakoa da. 1950-1951 urteetan, barrez, emakumeen korua izan zen Aretxabaletan. Irakaslea gasteiztarra zuten, Maria Luisa Perea eta asteen behin entsaioetara etortzen zen herrira. Emakume talde honek, Madrileran joan kantatzera eta lehenengo saria jaso zuen Donostiako beste abesbatza batekin batera.

Gaurko abesbatza

Gaur egun Karmelo Olabe da Aretxabaleta Abesbatzako lehendakaria. Bertako ki-deak, barrez, 30-32 izango

“Silosko benediktarrei eskerrak eman beharreen gaude gregorianoarekin asko lagundu digute eta”

dira. Azkenengoak 1995. urtean sartu ziren eta geroztik ez da beste inor hurreratu. Alde egin, barrez, poliki-poliki askok egin dute, emakume batzuek umeak izan eta ez dutelako astirik, gizonezkoen beste zeregin batzuk sortu zaizkielako, majo jeitsi da abeslari kopurua. 50 kideetik gora ere ezagutu ditu abesbatzak, jende gazte ugari egon zen garaia. Orduan lehiaketetan parte hartzeko ohitura zuten, baina gaur, jende kopurua ikusita ez da batera samurra behar eta gura den mailara heltzea.

“Astean bi egunetan izaten ditugu entsaioak, martitzen eta egunenetan, ilunkararako zortzi eta erdietatik hamarretara. Emanaldiren

bat daukagunean, barrez, zapatu eta domeketan ere etortzen gara” dio Karmelo Olabek.

Sari ugari jasotako korua

Aretxabaleta Abesbatzak lehiaketa batean baino gehiagotan parte hartu du. Baita sari ugari irabazi ere. Tolosako nazioarteko abesbatzen lehiaketan gizonezkoetan bi urrezko domina eta zilarrezko bat jasotakoa da. Emakumeetan, barrez, zilarrezko bat eta brontzezko beste bat. Sari hauek guztiak gregoriano mailan jaso zituzten. Lehendakariaren esanetan “Silosko benediktarrei eskerrak eman beharreen gaude gregorianoarekin asko lagundu digute eta. Zapatu domeka askotan berta-

ra joan eta eurekin entsaioetan genituen kantuak, Angulo aitarekin hain zuzen”.

Tolosako sariez gain, San Vicente de la Barquerako lehiaketan ere lehenengo saria jaso zuten urte batean eta “Villa de Aviles” lehiaketan hirugarrena.

Emanaldiak

Emanaldiak, bakarrik nahiz beste abesbatza batzuekin elkarlanean eman dituzte. Azpeitiko koruarekin esate baterako “El Caserio” lana abestu zuten. “Lan hau abesteko ahots gehiago behar genituen, baita instrumentuak ere, horregatik elkartu ginen beste koru batez” dio Karmelok. “Katiuska” lana ere aurkeztu zen herrian 1996ko gabonetan eta orain, berriz Azpeitiko koruarekin batera “El Caserio” lana euskaraz prestatu gura dute urte bukaerarako.

Herriko emanaldietarako, ordea, leku arazoa dute, Aretxabaletan, eliza izan ezik, ez dago eta leku egokirik korua behar den bezala entzuteko.

Gregorianoa abestera Estatu Batuetara

Ezin da aipatu barik utzi 1996an koruko gizonaek Mariatxen Urkiarekin batera Estatu Batuetako ekialdera egin zuten bidaia. Hamabost kontzertu eskaini zituzten hainbat hiritan, horietako hirutan Mariatxenek ere abestu zuen gizonekin batera. Guztira 15.000 lagun inguru hurbildu ziren gregorianoa entzuterako. Gasteizko abeslari batzuekin batera egindako bidaiak izugarritzko oihartzuna izan zuen Estatu Batuetako prentsan.


Uztailean Italiara

Uztailaren bukaera aldera Italiara dute bidaiatxoako korukoek. Ez da hara doazen lehenengo aldia. 1986an, Egiptoan Damaso Zuazua karmelitak Italian kontzertuak antolatu eta Vaticanoko elizan abestu ondoren, Aita Santuaren aurrean izan ziren. "1986 urte arte Vaticanoan

abestu zuen euskal abesbatza bakarra izan ginen, ostean ez dakit besteren bat egondena" dio lehendakariak.

Bidaia berri honetan ere Damasorekin doaz. Berak bi kontzertu antolatu die, bata, Monacoko katedralean eta bestea, Erroman, Montserrat-ko eliza nazionalan. "Aurten 20 urte bete ditugula eta, bidaia hau antolatzea erabaki genuen. Dirua lortzeko errifa ere atera dugu eta herritarrei eskerrak eman behar gaude, oso ondo portatu dira eta".

Argi utzi gura dute Aretxabaleta Abesbatza herriaren zerbitzura dagoela. Domeketako mezak, Gabon, Aste Santu, Andramaixak eta egun berezietako ospakizunak, hiletak... guztiak girotzen ditu koruak eta lan honetan jarraitu gura luke aurrerantzean ere. Horretarako, ordea, jendea behar da, jende gaztea, ikasteko gogoia eta borondatea duen jendea.



Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak



elkarte honetan, horien artean Aretxabaleta Abesbatza.

90. hamarkada arte ekitaldi ugari antolatu ziren abesbatzetzat: Topaketak, Toparas, Herriz Herri... Baina 90etik aurrera ekitaldi haundi hauek alde batera utzi eta koru bakoitzak bere ibilbideari ekin zion. Kantu ikastaroak, ahotsa lantzeko ikastaroak... antolatzen

hasi ziren eta honek musika eskolen sorrera ekarri zuen.

Musika eskola hauetatik abeslariak barra-barra sortu behar zirela uste izan zen. Ez da, ordea, horrela gertatu, batez ere mutilei dagokionean. Umeen abesbatzetan neska eta mutilen ahotsak parekatuta badaude ere, adinean gora egiten duten heinean mutilen ahotsak behe- ra egiten dute. Jende falta arazo latz bihurtzen ari da abesbatza askorentzat. Aretxabaletan bertan ere, asko jeitsi da abeslari kopurua azkenengo urteetan.

Jose Luis Errasti atxabaltarra da gaur egun Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko lehendakaria. Aretxabaletako abesbatzako lehenengo lehendakaria ere bera izan zen. Gipuzkoako Abesbatzen Elkartean 20 urte baino gehiago lanean ibili ostean, aurten Euskal Herrikoaren buru jarri dute. Kantatzeko jadanik ez daukala ahotsik dio, baina abesbatzen alde lan egin gura eta hor dabil nekatu barik hara eta hona lanean. Jose Luisek dienez orain urte batzuk koruan kantatzeagatik jendeak ordaindu egingo zuen, orain, ordea, abeslariak dirua eskatzen dute.



Txirrindularitza

Iban Sastrek Stuttgart-eko itzulian hartuko du parte. Uztailaren 10etik 16ra bitartean Alemaniako Stuttgart-eko itzulian izango dugu Iban Sastre. Karrera horrekin bigarren aldia izango da Ibanek Alemaniako korritzen duena. Horren aurretik hil honen 25ean Murtzian egingo den Espainiako txapelketan korrituko du. Bertan erlojuz kontrako proba eta beste karrera bat egin beharko ditu atxabaltarrak.



Futbola

Ekainaren 26an hasiko da Arlutz futbito txapelketa. Gaur, eguna, izena emateko azken eguna da Arlutz futbito txapelketan jokatu nahi duten taldeentzat. Izan ere, datorren astelehenean, hilak 26, hasiera emango zaio Arlutz futbito txapelketari. Aurtengo honetan kantxa izango da berrikuntza nabarmenena, izan ere, hau margotu egin da, eta aldamenetan baloiak gelditze horra jarri da.



Pilota

Bihar jokatu da esku pilota txapelketako finala. Arratsaldeko 20:00etatik aurrera 3. eta 4. postua erabakitzeke Xabier eta Oier Sarasua bikotea eta Gorka Madinabeitia eta Asier Errasti izango ditugu aurrez-aurre. Ordu erdi beranduago finala jokatu da, bertan Iban Isasti eta Argider Isasti oñatiarrak eta Ugutz eta Gaizka Garitaonandia arrasatearrak arituko dira. Bi partiduok Iturrigorri frontoian jokatu dira.



Txirrindularitza

Alebinek eta infantilek azken proba korritu zuten. Dorletako Ama txirrindulari taldeko alebinek eta infantilek joan den zapatuan denboraldiko azken proba izan zuten Urretxun. Julen Galiano 7. gelditu zen alebiretan eta Jon Lete hirugarren infantiletan. Arrasate kirolak taldeko bi txirrindulari hauek denboraldi bikaina egin dute. Jon Lete aurreneko postuetan ibili da eta Julenek, barrez, esperientzia haundia hartu du.

Jose Javier Irurek hiru haundiak egin zituen pasa den zapatuan Jesus Mari Sandovalekin batera. Aurtengoan bosgarren aldiz egin du mendi proba ospetsua, eta bero izugarria egin arren, sekula baino hobeto bukatu duela esan digu, 92 kmtako mendi martxa.

■ **Kontaiguzu Jose Javier aurtengo esperientzia.**

■ Gaueko 12etan irten ginen Zaldudonon linternekin. Gauez ibilbidea egitea oso polita izan zen. Hortik Aizkorriara igo genuen eta ondoren Urbiatik Araba menditik Jarindo, Kurtzeta, Orixol eta 11ak aldera Anboto igotzen hasi ginen. Gero eguerdiko ordu biak aldera Otxandion geunden. Eta bertan gorputza ondo errekupe-ratu eta indarrak hartu ondoren, Gorbearantz abiatu ginen. Gorbea puntara 6etan heldu ginen eta oraindik beste 17 kilometro genituen bukatzeko.

■ **Momenturen batean pasatu al zen zuein burutik proba bertan behera uztea?**

■ Bai, Otxandiotik Gorbeara begira jarrita geure buruari galdetu genion, "denbora honekin merezi du haraino joatea?", baina azkenean jarraitu egin genuen.

■ **Asko sufritu zenuten?**

■ Nik sekula baino gehiago izerditu nuen eta gorputzak ur asko eskatzen zuen. Ibilbidean sufritu arren, sekula baino hobeto bukatu nuen. Hortaz, antolatzaile moduan ur gehiago jarriko nuke bidean zehar. Horixe bota nuen faltan.

■ **Eta hurrengo egunean zer moduz zeunden?**

■ Lagunekin mendira joan nitzen domekan. Iratzargailu barik itzartu nintzen eta ondo nengoenez, mendira joatea pentsatu nuen.

■ **Beti beste norbaitekin parte hartu duzu?**

■ Bai. Beste norbaitekin edo eta taldean egitea garrantzitsua da. Ordu asko dira

eta buruari buelta asko ematen zaizkio. Horregatik garrantzitsua da beste norbaitekin joatea, pixkat distraitzeko, eta momentu latzenetan batak besteari animatzeko eta laguntzeko.

■ **Zerk animatzen zaitu horrelako proba gogorra egitera?**

■ Nire buruari galdetzen diot: aurten proba bukatzeko gai izango ete naiz? eta horrela animatzen naiz. Nire buruari jartzen diodan helburua proba bukatzea izaten da, nahikoa da eta.

■ **Hiru haundiak ez al da gehiegixto?**

■ Bai, astakeria bat da, hori egia da. Sandoval eta biok ere, bidean gindoazela elkarri zoratuta geundela esan genion.

■ **Bosgarren aldiz egin duzu, zer aldatu da lehendik hona?**

■ Lehen aldiz egin nuenean,

ibilaldi hau antolatzen zen bigarren urtea izan zen. Ordukoa askoz ere popularragoa zen, giro politagoa zegoen. Gaur egun konpetizio gehiago dago, orduan, barrez, umorea nagusitzen zen.

■ **Hiru mendietatik zein aukeratu zenuke?**

■ Anboto. Oso mendi dotorea da.

Jose Javier Irure Hiru haundiak 21 ordutan





Iñaki Iturbe, Iker Arejolaleibar eta Juan Carlos Barkero Donostian izan ziren Elbarrituen igeriketa txapelketan

Elbarrituen nazioarteko igeriketa txapelketan bi domina lortu zituzten atxabaltarrek

Joan den ekainaren 10ean Iker Arejolaleibar, Iñaki Iturbe eta Juan Carlos Barkerok Donostiako Alza auzoan egin zen Elbarrituen nazi- oarteko igeriketa txapelketan hartu zuten parte. Hiru protagonistak seiko serie- tan eta crol modalitatean aritu ziren eta baita emaitza bikainak lortu ere. Juan Carlos Barkero bigarrena izan zen bere kategorian eta zila- rrezko domina eskuratu zuen. Iker Arejolaleibar, ba- rrez, hirugarren sartu zen,

eta brontzezko domina lor- tu.


Iñakik dominarik lortu ez bazuen ere, estilo eta tekni- ka politaz egin zuen igeri. Iñakik teknika oso ona du eta Ikerrek eta Juan Car- losek, barrez, abiadura haundia.

Nagore Erañak, igeriketa- ko eta gimnasiako monito- reak, ez zuen horrelako emaitza onik espero. "Ondo pasatzearren eta partehar- tzearren joan ginen, eta bi dominakin itzuli gara. Ige-

rilarik bikainak direla erakut- si dute".

Astean behin igerilekura

Iker, Iñaki eta Juan Carlos orain urtebete hasi ziren igeriketan. Astero ordu- tebeteko saioa egiten dute igerilekuan eta Nagorek jakinarazi digunez, hirurek oso maila ona daukate. Ho- rrez gain, mantenimenduko gimnasia ere egiten dute. Animo ba mutilok eta jarrai- tu aurrerantzean ere kirola egiten.



HERRI ARTEKO PILOTA TORNEOAN ATXABALTA- RRAK FINAL AURREKOETARA

Herri arteko pilota torneoan Zestua gainditu ondoren, final aurrekoetara iritsi dira pilotari atxabaltarrak. Ho- rretarako hiru herri utzi behar izan dituzte atzean: Lezo, Tolosa eta Zestua. Az- ken norgehiagoka horretan, atxabaltarrek samur gaindi- tu zituzten zestuarrak. Zes- tuan kadete, jubencil eta senior mailako hiru parti- duak irabazi zituzten, etxe- an, barrez, astebukaera ho- netan izan diren partidue- tan bi partidu irabazi eta bestea galdu egin dute. Kadeteetan, Igartua-Uriarte 22 Uria-Odriozola 18 izan zen emaitza. Jubenilek galdu egin zuten, Altube- Kortabarria 19 Garciaian- Aranguren 22. Senior mailan Lasagabaster-Ibon Errasti bikoteak samur gain- ditu zuen Zelaia-Lopetegi bikotea, 22-4ko emaitzare- kin. Honenbestez, final au- rrekoetara iritsi dira atxa- baltarrak eta hurrengo aur- karia Azkoitia izango dute.

Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta
egokitzean
diplomatua

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Tel.: 943 77 04 34

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96



Denetik

Bizikleta estatikoa eta remo jarlekua salgai. Egoera onean. Biak 12.000 pta. Tel.: 649 555115. Jesusegatik galdetu.

Motorra erosiko nuke. Tel.: 943 77 09 52 (Paul).

Bi salmahai eta apalategi metalikoak salgai. Tel.: 666957983.

Urre zurizko ezkon-eraztuna galdu nuen ekainaren 10ean Aretxabaletan. Tel.: 943 79 10 70.

Opel Astra GSI 115 cv salgai. 1993. urtekoa. Txuria. Tel.: 943 77 09 23. (Roberto).

Piragua salgai. Whip, it. Arraunekin, "cubrebañera" eta bi globorekin. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

Opel Kadet GSI 2000 16 v salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 75 11/79 98 08 (Mikel).

Ford Sierra 2000 kotxea salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 68 63.

Buldog ingeles txuri bat saltzen da. Bi urte ditu eta oso zintzoa da. Pedigri onekoa.

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.

Tel.: 943 79 21 86. (Jon).

Boxer eta pastor aleman arrazako txakur kumeak salgai. Pedigriarekin. Tel.: 696 057 346.

Gaixotasun arazoengatik negozioaz ezin garelako arduratu, martxan dagoen denda alokatzen da Aretxabaletan. Tel.: 626 379 326.

Bigarren eskuko ordenagailu portatila erosiko nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Txahalak salgai kongeladoran sartzeko. Labeldunak eta natural hasitakoak. Bildotsak ere bai. Tel.: 689 541 861.

Peugeot 306 XR 1.6 salgai. 1993koa da eta 78.000 Km. ditu. Tel.: 607 15 30 70.

Ford Mondeo V 6 salgai. Eguzki-sabaia, aleroiak eta bajuak ditu. 2 urte, 72.000 km. Tel.: 609576394.

Ford fiesta familiarra salgai. 16 v. SS-BB. Tel.: 943 79 91 27.

Opel kadet GSI 2.0, 130 zaldikoa salgai. Tel.: 943 79 16 43.

Etxebizitza

Logela bat alokatzen da, pisu konpartitu batean Arrasaten. Tel.: 943 79 23 96.

57 m²ko garajea salgai edo alokagai Errekabarraren kalean. Tel.: 943 79 74 73.

Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tel. 649 16 86 69.

Lau neskak pisu bat alokatu nahi dugu Aretxabaletan. Tel.: 636892129.

Garajea salgai/alokagai Murubiden. Tel.: 639418106. (Ilunkaran deitu).

Herriko plazan lokal bat saldu edo alokatzen da. Tel.: 943 79 77 30. Egoera onean.

Laredon apartamendua alokatzen dut. Hondartza ondoan. Tel.: 943 79 52 80 edo 656 717 745.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

KRISTALDEGIA

Herriko plaza, 8 behea

☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

ARETXAZOKA

Lana

Xaramela tabernan lan egiteko pertsona bat behar da.

Tel.: 943 77 11 92.

Portalak garbitzeko neska bat gertu dago.

Tel.: 676393642.

Aretxabaletan zabalduko den kafetegian lan egiteko zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. Hobe esperientziadunak.

Tel.: 600264164.

Lan deialdi publikoak


Goi mailako teknikaria, dokumentazio zentroko koordinatzaile aritzeko. Gasteizko Udalaren ingurumen gaietarako ikastegia. Goi mailako unibertsitate titulua. Hirugarren hizkuntz eskakizuna. Oinarriak: 2000/06/12. Epea: uztailaren 5a.

Usurbilgo Udala. Liburuzain laguntzailea. Oinarriak: GAO 2000/05/25. Epea: EAOn argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean.

Debagoieneko Mankomunitatea. Gidaria: lau lanpostu. Hondakin biltegiko zain-tzailea: bi lanpostu. Oinarriak: 2000/05/12. Epea: EAOn argitaratu eta 20 eguneko epean.

Bilboko orkestra sinfonikoa. Instrumentugileentzako entzunaldiak. Epea: 2000/07/15. Informazioa: Euskalduna jauregia.

Durangoko Udala. Igeltseroa eta ingeniari teknikoa. Oinarriak: 2000/05/03. Epea: EAOn argitaratu eta 20 eguneko epean.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

KALITATE TEKNIKARIA. Deba Goiena.
Erref.: 32055/3

ZERBITZARIA. Gasteiz.
Erref.: 33072/3

ZUZENBIDEKO IDAZKARIA. Bilbo.
Erref.: 33355/3

PINTOREA. Deba Goiena.
Erref.: 33826/3

ADMINISTRARIA. Usurbil.
Erref.: 33849/5

FUNDIZIOKO LANGILEAK. Arrasateko ETT.
Erref.: 34518/3

HIRU AROTZ. Deba Goiena.
Erref.: 34385/2

HOTZEKO MANTENIMENDUKO TEKNIKARIA. Deba Goiena.
Erref.: 33459/2

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15

☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Etxabe harategia

Durana 4

☎ 943 79 16 61



**Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak**

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea

Angelines AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 85 57

Artano taberna

**Herriko
plazan
ARTANO**

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Gurea taberna

**Jatetxea eta
taberna**

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Basabe jatetxea

*Menu eta
afariak*
**BASABE
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna




Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Matikua jatetxea



Azatza auzoa ♦ Tfnoa: 943 79 16 68

Mendiola erretegia



Tfno 714845

♦ Bazkari
eta afariak

Asteleheneran
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Bazter alde jatetxea



Sasoiko
jakiak
giro
onenean


Galartza auzoa
© 943 79 24 58
ARETXABALETA

Izotz taberna

Zure gustoko giroa
**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

Mitartegarai



Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51



Josu harategia/taberna

*Josu
harategia-
taberna*

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08



Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA



Astakeriak

Berriro ere, gaurkoan kirolzaleak eta kazetariak nagusi. K eta K baina inola ere ez kaka bat. Hara hor **Edu Abasolo** ATBtik GOITB eta orain ETBra. Jaien denboraldia hasi da eta badoa, "Jaiak" programaren furgoneta hartu eta herriz herri Euskal Herriko hainbat festen berri guri ematera. Ez da lan txarra! Jaiak jai! Ea bada, lan txukun bat egiten duen eta aurrerantzean ere zorterik duen. Ah! eta jakina, Andramaixetan hemen ikusi nahi dut. Ez dakit aurtengoan nortzuk geldituko garen herrian, baina gaudenak gaudela giro onean ospatuko dugula ez dago dudarik.


Maialen Garciari, barrez, bukatu zaizkio oporrak. Eskoriatzako majisteritza eskolan dihardu ikasten, eta orain, oporrak eman dizkiotenean, lanean hasi behar. Baina horrek ere ez du lan txarra, ludotekan, Olaia Urzelairekin batera umeekin jolasean arituko da.

Gure herriko txirrindulariek ere, jolas bezala hartu dute jadanik 205 kmtako Quebrantahuesos, Sabiñanigoko klasika famatua. Izenak dioen bezala, honetan igarriko dute hezurrik txikiena ere non duten **Alfredo Meabe, Jorge Oiarbide, Luis Felix Unanue, Jon**

Armentia, Jesus Mari Rosado, Cándido Perez, Iñigo Roldan, Asier eta Luis Mari Elkorobarrutia eta Joxemi Elizburuk. Gainera, Cándido Perez sari berezia eman zioten, 10 aldiz jarraian proba hau egiteagatik. Indurainek eman zion mallot berezia. Ez dute merito makala! 205 km ko-txean ere luze egiten zait niri eta zer esanik ez bizikletan. Pasa den astebukeraren hiru haundiak egitera joan zirenak ere... erredio! Egin zuen beroarekin ez dakit nola ez zen ezer gertatu. Gu belarretan ibili ginen jo eta ke kriston beroa pasatzen eta beste batzuk bitartean, ostiral eguerdian irtenda, Aizkorri, eguerdian Anboto eta arratsaldean Gorbea. batzuk amaitu zuten eta beste batzuk etsi egin behar izan zuten. Hemendik bi urtera ere proba hor egongo da, eta Iñurrategitarrak ere ez dute beti gailurra egiten.

Beno eta besterik ez, banoa belarra batzera. Lehen euriaren kejaz eta orain beroari purrustadaka. Baina onena garaian garaikoa egitea eta orain beroa tokatzen da, beraz... Ondo pasau San Juanak eta oroitzen txarrak bota sutara.

M. J. Armentia



Manolito laubegi

Elvira lindo
Irudiak, Emilio Urberuaga
Itzulpena, Mikel Garmendia
Alfaguara-Zubia, 2000

Manolito Laubegi oso ezaguna da; jadanik bost liburu badiu gaztelaniaz, zinera eraman dute eta antzerki obra bat ere egin dute. Hau Manolitoaren lehen liburua da; bertan Carabanchelen bizi den mutiko xebreak bere eguneroko bizitzan gertatzen zaizkion gauzak kontatzen dizkigu bere ikuspuntu bereziarekin, beti ere umore handiz eta kaleko hizkuntza erabiliaz. Manolitoaren ezaugarri nagusietako bat darabilen hizkuntza da eta Garmendiak itzulpen egokia egin duen arren gaztelaniazko bertsioa beti izango da hobea alde horretatik; jakina baita itzulpenek beti zeozker galtzen dutela bidean. Liburu hau berehala irakurtzen den horietakoa da, bere erritmo biziagatik. 12 urtetik aurrera irakurtzeko modukoa da eta helduek ere barre ugari egingo dute Manolitoarekin. Ziur bukatu orduko beste bat irakurtzeko irrikitan egongo zaretela.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Edera in gau.
- Ze ba?
- Bixer San Juan bezperie da eta ez gau sua itxeko traste zaharrik batu.
- Edera in dou.
- Ze ba?
- Bixer San Juan bezperie da eta ez dou sua itxeko traste zaharrik batu.



EKAINA

22 EGUENA

■ TXONTXONGILO EMANALDIA

Behi bi's taldeak "Bertsotas" txontxongilo emanaldia eskainiko du 18:00etan udal liburutegian. 6-11 urte bitarteko-haurrei zuzenduta dago.

■ BATZAR OROKORRA

Almen kirol elkarteak batzar orokorra egingo du 19:00etan Almenen.

23 EGUAKOTXA

■ SAN JUAN BEZPERA

Arratsaldean bonba japoniarrak, buruhaundiak, dantzariak... Gauean San Juan sua eta kintoek tantaia altxatuko dute.



23, 24, 25

■ ERAKUSKETA

Hegaztien marrazkien inguruko erakusketa izango da Ubarroi taldearen eskutik udaletxe zaharretan. Hilaren 23an 18:00etatik 21:00era hilaren 24an eta 25ean 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00era.

25 DOMEKA

■ URKULURA IRTEERA

Goizeko 10etan udaletxe zaharretik irteera egingo da Urkulu eta inguruko hegaztiak ikusteko. Biologoak azalpenak emango ditu eta hegaztiak teleskopioz ikusi ahal izango dira.

UZTAILA

3 ASTELEHENA

■ ODOL EMATE EGUNA

Arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara odola eman ahal izango da osasun zentruan.

4 MARTIZENA

■ PLATAFORMAKO

BATZARRA

Martxa nazionalaren herriko ibilbidea zehazteko bilera egingo da 19:00etan udaletxeko ganbaran.

6 ASTELEHENA

■ ODOL EMATE EGUNA

Arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara odola eman ahal izango da osasun zentruan.

8 ZAPATUA

■ GORPUTZA ETA BURUA INTEGRATZEKO TAILERRA

Goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara gorputza eta burua integratzeko tailerra izango da. Mari Bel Gomez eta Encarna Mendezek zuzenduko dute. Izena eman nahi izanez gero 943 79 88 53 telefonora deitu.

IKASTAROAK

■ EUSKO IKASKUNTZAKO 2000-2001 ERAKO MASTERRAK ETA IKASTAROAK

Eusko Ikaskuntzak 2000-2001 ikasturteari begira hainbat master eta ikastaro interesgarri antolatu ditu. Horien artean, Kazetaritza digitaleko urrutiko elkarreaginezko ikastaroa, Nazioarteko merkataritza urrutiko elkarreaginezko masterra, Elkarreaginezko ikastaroa Eusko ikasgaietan, eta azkenik, Elkarreaginezko urrutiko masterra ingurugiro zuzenbidean. Informazio gehiago gura izanez gero, 943 31 08 55 telefonoan izango duzue.

LEHIAKETAK

■ ANDRAMAIXETAKO KARTEL LEHIKETA

Aretxabaletako kultura sailak Andra Mari jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa antolatu du. Teknika librean izango da eta kartelaren neurria, 50X70 zm izango da. Bertan Andramaixak 2000/abuztuak 14, 15, 16, 17 hitzak azaldu beharko dira. Saria: 35.000 pta. Epea: uztailak 12.

BALITAKUK

(Hikaz berbetan)



Mikel Arriobe

Aretxagazeta

Zorion agurrak



Itxaso Urrutia Vazquez
Ekainak 12
3 urte. Zorionak guraso eta familia guztiaren partetik.



Maylin Bardet
Ekainak 18
21 urte. Zorionak Gureako lankide eta Santi zure senarraren partetik.



Josu Irure
Ekainak 20
Zorionak etxeko gaztetxoentzako. Familiakoak.



Amaia Gastañaga
Ekainak 21
Zorionak eta urte askotarako. Lagunak.



Jose Fuensanta
Ekainak 22
Zorionak Gureako lankideen partetik.



J. Karlos Gomez
Ekainak 25
Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Jon Kepa Zubillaga
Ekainak 28
Zorionak kafea hartzera joaten diren lagunaren partetik.



Laura eta Piti
Uztailak 1
Zorionak bikote. Denok ondo pasatzea espero dou ezkontzan. Lagunak.

Zorion agurrik argitaratu nahi baduzue, Aretxagazetara zuzendu, Durana, 11 edo 151 postakutxatilara bidali.

Txistuak • Txaloak

Oraingoan, duda barik, txaloak I. Atxabaltako martxaren antolakuntzari eta parte hartzaileei. Norbaiti, bururatu zitzaion urte hasiera aldera, hau egitea eta harez geroztik, buru belarri murgildu dira antolakuntza lanetan. Talde txikia izan da asteazkenero prestatzen aritu dena, baina egin duten lana, itzela da, emaitza ikusi besterik ez dago. Aurrez, 200 lagunena iristen bazen "exito" bat izango ei zen eta 300 agertu, ez al da txalotzekoa? Denak tripa beteta etxera gainera! Pena da halako eguraldi txarra egin izana baina... **Txalo** bat, beraz, Goio, Sardan, Imanol eta ingurukoei. Beste bat, gerturatu ziren "martxista" guztiei, eta azkenik, txalorik beroena 2002. urtekoa prestatzeko animatzeko.



Jaiotakoak

Hildakoak

■ **Feliciano Martinez Carrasco**

Ekainaren 15ean/53 urte.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



M Garai bateko Aretxabaleta

Makina bat oroitzen zahar gogora ekartzen dizkigu fotografia zahar honek. Ordutik zeharo aldatuta dago gure herria, haunditu, zabaldu eta izugarri luzatu baita. Hala ere, noizean behin iragana gogoratzea denoi gustatzen zaigu.

Apotzaetxebarri aldeko zelaietatik ateratako argazki horrek, lehengo Agustindarren konbentua erakusten du aurrez-aurre. Irudian ageri den moduan, eraikuntza itzela

zen hau, eta jakina, leiho asko behar ziren hura argitzeko. 1979. urtean konbentu zaharra bota eta gaur egungoa eraiki zen. Azken hau 1981. urtean inauguratu zen. Horren ezker aldean Andra Mari parrokia daukagu, oraingo antzera azken hau. Durana kalea ere ondo ikus daiteke, etxe bakoitzak bere ortua atzean daukala. Atzean Kurtzebarri eskolak itxura desberdina eraikusten du. Hau berriztu egin

zen 1991. urtean eta ez du garai batekoaren antz handirik. Era berean, paisaiak ere ez du gaur egunekoaren antzekotasun handirik. Pinu gutxi ageri da argazkian eta kaletik hasi eta Orora artean zelai ederrak azaltzen zaizkigu.

Garbi dagoena zera da: denboraren gurrpilek gero eta abiadura haundiagoan garamatzabela.

Argazkia: Argazki artxiboa



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Etorkizuna zure esku



Ematen ditugun motak

- Natur eta Osasun-Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Teknologikoa.

Bide irekiak

- Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak ditugu.

Hizkuntzak

- Ingelesa.
- Frantsesa.

Modalitate eta Aukerakoetan eskaintza zabala

- Laborategi teknikak.
- Elektroteknia.
- Mekanika.
- Psikologia.
- Antropologia.
- Ekonomia eta enpresa antolaketa.
- Iharduera fisiko, aisialdi eta osasuna.
- Ordenagailu bidezko marrazketa eta diseinua.



Erdi Mailako Zikloak

- Ibilgailuen elektromekanika.
- Erizaintzako zaintza osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mekanizazioa.
- Kontsumorako ekipo elektronikoak.



Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produkzioa.


Matrikula egiteko epea

MATRIKULA
Batxilergoa Uztailaren 3tik 10era
Heziketa Zikloak Uztailaren 3tik 7ra

Berri gehiagorako:

ARRASATE / Sta.Teresa, 25 • Tel.: 943 79 44 47 / 79 83 00 /

ARETXABALETA / Etxebarrí auzoa, z/g • Tel.: 943 79 79 00 / 79 79 43 /



RENAULT Scénic RX4

Ohiko bidetik ateratzen da,
berezia baita



MECA, S.A.

San Andres auzoa, 8 • Tel.: 943 71 21 67 • ARRASATE

Amillaga, 5 • Tel.: 943 76 40 68 • BERGARA

Industrialdea z/g (Anoeta) • Tel.: 943 65 28 43 • TOLOSA